



## DBHko eraikina errealitate bilakatuko da Urnietan

Eusko Jaurlaritzak eraikitze lanen berri eman die Egapeko Gurasoen Elkarteari nahiz ikastetxeetako zuzendaritzari, eta baita Urnietako Udalarari ere / 5

## Herri-kontsulta loteslea

C2ak kaltetutakoen plataformak egitasmo berria gauzatu nahi du / 5

Gure Zirkua maiatzean hurbilduko da Andoainera. Sarrerak dagoeneko salgai daude / 16

Euskalduna futbol taldeak andoaindarrekin ospatu nahi du mendeurrena / 11

## euskara bada errenta

**ERRENTA  
AITORPENA  
EUSKARAZ**

APRILAREN  
3TIK AURRERA  
AUTOLIKIDAZIOA  
ONARTZERAKOAN,  
SAKATU EUSKARAREN  
AUKERA



Informazio gehiago:  
[www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus)  
[www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)





Etiket egiten du lan Lopezek. AIURRI

# “Jendearen premien eta interesen araberrako bidaiak antolatzen ditut”

**VIRGINIA LOPEZ** MAVEC TOURS BIDAIA-AGENTZIA

Bat baino gehiago izango da Aste Santuen atarian oporretan nora joan asmatu ezinik. Lopezek bi hamarkada daramatza Mavec Tours bidaiia-agentzian lanean

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Munduko mapa hartu eta ia zirrikitu guztiak buruz ezagutzen ditu Virginia Lopezek. Mavec Tours bidaiia-agentzian egiten du lan duela 22 urtetik, eta hamaika abentura poltsikoratzeaz

gain, neurritan egindako bidaiak diseinatzen ditu.

**Gertuko zein urrutiko jauziak antolatzen dizkiezu bidaiariei, etxetik lanean. Erosoa egiten al zaizu?**

Oso gustura egiten dut lan etxean. Ez dut, lehen bezala, Donostia-

raino joan behar, eta aurrez finkatutako ordutegi komertziala bete. Neure erara antolatzen naiz: lanez lepo banabil, gosalduta bezain pronto ipintzen naiz ordenagailu parean. Aldiz, patxada handiagoarekin hartzen dut

lan-karga baxuagoa dudanetan. Mugikorrarekin eta ordenagailuarekin egiten dut lan, baina ez naiz online agentzia, nik neuk osatzen baitut bezeroen interesera egokitutako bidaiia. Horrez gain, nahi izaten badute, aurrez aurre ere gelditu izan naiz, hemen etxean, edota adostutako tokiren batean.

**Bidaia itxiak eskaintzen al dituzu edo bidaiarien interesek garrantzia al dute zure lan jardunean?**

Neurrira antolatutako joan-etorrietan nago espezializatuta, alegia, beren premien zein interesen araberrako bidaiak antolatzen ditut. Neure irizpideen arabera hasten naiz bidaiia prestatzen, baina, era berean, bezeroekin hitz eginda osatzen dut, lehen egunetik azken egunera bitarte behar dituzten gauza guztiekin. Bestalde, jada, antolatuta dauden bidaietako ere lan egiten dut, batzuetan, horietan dira-eta jendearen intereseko.

**Lana egiten duzu, eta, gertutasun handiz, gainera.**

Jakina. Zenbaitetan, ezustekoak gertatzen dira bidaietan, bada, hortxe nago ni arazoak konpontzeko, baita asteburuetan ere...!

**Hori horrela, zaila egiten al zaizu lana bizitza pertsonaletik bereiztea?**

Inportantea da bereizketa egitea, batzuetan, jendeak desgaraian hots egiten didalako.

**Interesa duenak zenbateko arrerapenarekin ipini behar du zurekin harremanetan?**

Ordaindu nahi den diruaren arabera. Esate baterako, opor garaien bezperako asteetan, azken orduan dei eginez gero, oso garestia izango da bidaiia, hala nola, Aste Santuan, uztaila nahiz abuztuan edo Gabonetako oporretan. Hortaz, zenbateko arrerapenarekin? Urteko sasoiaren arabera, baita helmugaren arabera ere. Adibidez, Aste Santuko nire oporrek abenduan antolatu nituen; orain, bikoitza balio du. Gauza bera udako oporrek; hegazkinak, jada, hartuta ditut. Bezeroen kasuan, badira zuhurtzia handikoak, baina baita guztia azken momentuan egiten dutenak ere. Denborarekin antolatzearen aldekoa naiz, dirua aurrezte aldera.

**Oraindik, bidaiia-agentzietara jotzeko joera al dauka jendeak?**

Urte asko daramat honetan, eta adin guztietako jendeak jotzen du nireira. Hasieran, gazteek guztia Internet erabilita kudea-

tzen zutela uste nuen. Baina, bidaiia batean, hainbat helmuga eta hegaldi nahasten direnean, errespetua ematen dio jendeari. Halaber, adinekoei ihes egiten diete plataformak digitalek. Hala, segurtasuna sentitzen dute bidaiia-agentzietan harremanetan jarrita.

**Zein bidaiia mota gailentzen da?**

Askotariko eskariak jasotzen ditut, bai Euskal Herriari dagokionez, bai hemendik kanpo. Are gehiago esango dizut, Urrietatik oso urrun bizi den jendearen bidaiak ere kudeatzen ditut, besteak beste, New Yorken bizi zen bikote baten eztei bidaiia antolatu nuen! Amerikako Estatu Batuen mendebaldeko kostatik ezagutu nahi zuten, lehenik, eta, ondoren, Polinesia Frantsesean amaitu zuten.

Bidaiia motei dagokionez, denetatik kudeatzen dut, mendira, hiriak ezagutzera edo hondartzak aldera jotzeko. Norbanakoekin nahiz taldeentzat diseinatzen ditut bidaiak: Real Sociedadeko lagunarteei, ikasbidaiak egin nahi duten eskolei...

**Bada, urtero, guztien gainetik gailentzen den helmugaren bat edo beste. Aurten, zein izango da zure ustez?**

Lehenengo urtean, Albaniak arrakasta handia izan zuen. Oso ederra omen da eta ez da hain garestia, oraindik ez baitago masifikatuta. Datorren udari begira, jada, zenbait bidaiia antolatzen hasia naiz, nazioartera: Madeira, Kanada, Alaska, Argentina, Alemania, Italia, Maldibak, Dubai, Egipto... Los Cabos (Kalifornia Beherea, Mexiko) ere, pixkanaka, jakinmina piztu du.

Nolanahi ere, pandemiaren ostean, prezioek nabarmenki egin zuten gora, bizitza, orokorrean, garestitu egin den heinean. Espainiako Estatuan, bideragarria da Balearretara nahiz Kanarietara joatea. Arazoa autoalokairuan dago. Izan ere, enpresek beren autoak saldu egin zituzten, pandemiak eragindako bezero ezaren aurrean. Koronabirusak asko zigortu du turismoa. Guk ezin genuen ezer ere saldu, Urrietatik atera ezinik geundenean.

**Zuk ere bidaiatzeko joera handia al daukazu, ahalik eta kalitate handieneko zerbitzua bermatzeko, gerora, informazio eske datozenei?**

Bidaiari samarra naiz. Bidaiatzen dudako bakoitzean, guztia

ikusteko beharra sentitzen dut beti, hotelak eta guzti! Horrela, bezeroei lehen eskuko kalitatezko informazioa bermatzeko aukera daukat, ezagutzen dudana hobeto azaltzeko gai naitzeko. Autokarabanarekin izan nintzen Amerikako Estatu Batuetan; errepideak ezagutzeko eta batetik besterako distantziak kalkulatzeko baliagarria egin zitzaidan.

Bestalde, promozio-bidaia ere egin izan ditut Espainian edo Frantzian: tokiak eta hotelak bisitatu genituen, ondoren, gustuko ditugunak, saltzeko. Ondo pasatzen genuen, askotariko bidaia-agentziatako berrogei bat langile batzen ginelako. Aurkezpenetara ere joaten naiz, informazioa biltzeko: Andaluziako turismo-bulegoa, urtero dator bere eskaintzaren berri ematera. Bi hamarkada luze pasatuz daramat lanean bidaia antolatzen; hortaz, toki batzuk bisitatu ez ditudan arren, oso gertukoak egiten zaizkit, makina bat aldiz prestatu baititut horietarako bidaia.

**Zer dauka agentzia batek antolatutako bidaia nork bere kabuz prestatutako bidaia ez duena?**

Lasaitasuna, guztia lotuta dagoelako. Eta, aurreikusitako bidaiaren ezustekoren bat badago, horri irtenbidea topatzeko bermea daukazu, kasu honetan, nire laguntzaren bidez.

**Aste Santuari begira, zein joera sumatu duzu?**

Espainian, landa-eremua, Lanzarote eta Kanaria Handia.

**Zer egin behar du zurekin harremanetan jarri nahi duenak?**

Telefona hotz egin (619 741 721), edo mezu bat idatzi virginia.lopez@mavectours.com helbide elektronikora.

## Bullyngua eta adimen emozionala, aztergai

Bi hitzaldi antolatu dituzte Urnietan, eta izen-ematea astea amaitu baino lehen egin behar da

**Erredakzioa URNIETA**

"Bullyng egoerak minimizatzeke ingurune seguruak nola sortu" eta "Adimen emozionala, zer da sentitzen dudana?" hitzaldiak izango dira, hurrenez hurren, apirilaren 19an nahiz 20an, "Treba gurasoak" ekimenaren eskuatik. Arratsaldeko 18:00etan hasiko dira biak ala biak, Kiroldegiko box izeneko gelan.

Izaskun Lopezek gidatuko du lehen solasaldia, ingurune seguruak sortzea xede: "Egon daitezkeen arrisku-egoerak detektatzen eta identifikatzen ikastea da helburua, hala nola, jazarpen edo bullying-egoerak". Ostera, Jone Zalduegik gidatuko du bigarrena eta "norberaren emozioak identifikatzen ikasi, nahiz horiek kudeatzeko estrategia ezberdinak" izango ditu hizpide bertan.

**Izen-ematea**

Bertan parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute martxoaren 27-31 bitartean. Horretarako hiru aukera daude:

- Presentzialki: Bertan eta Gazte Informazio Puntua.
- Telefonoa: 943 008 033.
- Posta: gazteinformazioa@urnieta.eus.

# Beterri-Buruntzako hautagaien aurkezpena

Eusko Alderdi Jeltzalearen ibilbidea eta historia aldarrikatu ditu gaur Eider Mendoza Larrañaga Gipuzkoako diputatu nagusia izateko hautagaiak. "Sinesgarritasuna eta bermea" eskaintzen diote herritarrei, haren hitzetan

**Jon Ander Ubeda URNIETA**

Maiatzaren 28a gerturatzen ari da eta EAJ-PNV alderdiak Beterri-Buruntzako hautagaien aurkezpena egin zuen aurreko larunbatean, San Juan plazan. Eskualdean indar gehien duen herria da Urnieta, izan ere, gehiengo osoz agintzen ari da Jorge Segurado eta bere lantaldea. Historikoki, ia beti jeltzaleen esku egon da Urnietako alkatezta. Alderdiko ekitaldia izan zen larunbatekoa, eta eskualdeko udal hautagaiekin batera Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaiak eta Xabier Ezeizabarrena Donostialdeko hauteskunde barrutiko zerrendaburuak ere parte hartu zuten. Aurkezle lanetan, berriz, Mari-bel Vaquero aritu zen.

Hautagai bakoitzak udalerrri bakoitzerako ildo nagusiak aurkeztu zituen, eta Jorge Segurado Urnietako hautagaiak etorkizuneko lan ildoetan jarri zuen azpimarra. Honako hauexek dira eskualdeko alkategaiak: Imanol



Jorge Segurado hizlari aritu zen, larunbateko ekitaldian. AIURRI

Goenaga Egibar, Andoaingo alkategaia; Jon Antxordoki Rekondo, Lasarte-Oriako alkategaia; Maria Otaegi Velez, Astigarragako alkategaia; Andoni Amorrarraz Gomez, Hernaniko alkategaia; Xabi Otxoa Muñoz, Usurbilgo alkategaia; eta Jorge Segu-

rado Iriondo, Urnietako alkatea eta alkategaia. Garrantzi handiko ekitaldia izan zen alderdiarentzat, Urnietara hurbildu baitziren hainbat ordezkari. Tartean, Eneko Goia Donostiako alkatea eta Joseba Agirretxea Kongresuko ordezkaria.

## Mural lehiaketa

Lide Lizeagak, Sayuri Francok eta Hayat Serranok irabazi dute, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, Gaztelekuak abiatutako mural-lehiaketa. Herriko nerabeen artean, emakume erreferenteen gaineko hausnarketa sustatu eta horiek ezagutzera ematea du xede ekimenak: irabazleek Izaro Andres abeslaria izan dute hizpide.



UDALA



Urnietako, eskualdeko eta Gipuzkoako jeltzaleen ordezkari zabala elkartu zen San Juan plazan. AIURRI

## IRITZIA

RAMON IRAZU GARMENDIA ANDOAIN

# Krisi ekosoziala, tokiko energia komunitateak eta Repsol

Ondorioak begibistakoak direnez, gaur egun, ez du inork ukatzen krisi ekosozial sakon batetan murgilduta gaudela. Lurraren artifizializazioarekin, erregai fosilen karbono isuriekin, eta era guztietako kutsadurekin, kinka larriari jarri dugu gure planeta.

Biodibertsitatearen galera, berotegi efektua eta natur zizkloen aldaketak modu larrian nabarmendu dira leku guztietan.

Planetaren mugak antzematen hasiak gara eta ez dirudi indarrean dagoen eredu sozio-ekonomiko hau jasangarria denik.

Izaera desberdineko erronkak dauzkagu. Zalantzan jarri beharko ditugu egun ohikoak diren produkzio, ugalketa, elikadura, garraio eta energia ereduak. Zalantzan jarri eta sakonetik aldatu.

Material eta energia kontsumoak muga ekologikoetan kokatzea ezinbestekoa da.

Garraioarekin, mugikortasunarekin, arazo itzela daukagu. Garraio publikoa indartzearekin batera, ekonomia zirkularra garatuz eta gertuko produktuak babestuz hasiko gara arazoa bideratzen.

Sektore elektrikoaren izaera publikoa berreskuratzea ajendan jarri beharko da, ezin delako hain eremu estrategikoa Repsol eta Iberdrola bezelako oligopolioen esku utzi, beraien irabazi pornografikoak pobrezia energetikoa eragiten ari diren bitartean.

Eta energia berriztagarriak garatzen hasi, nola ez. Aldaketa estrukturaletaz eta maila desberdinetan gauzatu beharko diren politiketaz ari gara, mundu zabaletik hasi eta edozein herri/auzora iritsi beharko dutenak.

Modu planifikatu batetan aurre eginez eta jendearen partehartzea sustatuz; eta ez urgentzi aitzakiak medio, herritarren iritzia alboratuz.

Baina hemen, energia berriztagarrien instalazioen kokapena jasotzen duen EAEko Lurraldeko Antolamendu Plana onartu gabe dago oraindik. Gogoratu 2002ko Plan zaharrak, 17 eoliko aurreikusten zituela Gazumen... Eta jendearen borondatearen gainetik, beti, beti, Tapia Legea egongo dela.

Udal gehienetan, ez dago kontsumo azterketarik eta ezin da jakin zein ahalmen energetiko gordetzen duten herriko teiltatuek.

Asteasun eta Andoainen aurkeztu berri dizkiguten autokontsumo proiektuak Tokiko Energia Komunitateak direla esaten digute. Nere ustez, nekez esan daiteke izen hori merezi dutenik.

Energia Komunitate bat ez baita edozein jabegok bere eraikinean egin dezakeen zerbait, hots, teiltuan plakak jarri eta argi-indarra banatu. Hortik haratago doazen helburuek definitzen dute Energia Komunitate baten izaera.

Ez da soilik fakturan dirua aurrezteko tresna bat, ekimen kolektiboa baizik. Tokian-tokiko baliabideak erabiliz kontsumo eredu arduratsu eta jasangarriagoak bultzatzeko bitarteko bat, gizarte kohesio handiagoa sustatzeko eta burujabetasun aniztetan aurrera egiteko balioko duen bitartekoa.

Azken finean Energia Komunitateak prozesu baten ondorioa izan beharko luke, herritarren hausnarketa eta ahalduzko prozesu baten emaitza.

Andoaingo Udalak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak Asteasu bezelako herri txikietan bultzatzen ari diren ereduak, ez daukate zerikusirik lehen aipatutakoarekin. Ez da prozesurik egon eta REPSOLen marka bat (EDINOR) hasiko da instalazioak kudeatzen. Ez dago kontsumo azterketarik eta Komunitate Energetikoaren funtzionamendu arauak nahiz eta ezarrita egon, ez dituzte plazaratzen. Ezin da asmatu nola aukeratuko diren zuzendaritza organoak, edota bono-soziala daukaten herritarrek parte hartzerik izango duten. Ezta ere pobrezia energetikoa sufritzen duten herritarrak kontutan izango dituzten.

Hori bai, aurkeztutakoaren arabera EDINOR-ek argi-indarraren prezio onak lortuko dizkie Komunitatekoen berak proposatutako Komertzializadora pasatzen badira. Agian Repsol jabe den "Repsol-luz" edo "Gana energia"ra pasatzeko proposatutako diete?

Badirudi Edinorrek, kontsumitzaileen putzu moduan baliatzen duela Energia Komunitateak, ondoren bezeroak multzoka arrantzatzeke. Hala ere ez da harriztekoa, multinazionalak transizio energetikoetaz aritzen direnean, negozio ereduaren trantsizioa baitute buruan.

Repsol oso historia beltza dauka Hego Amerikan petrolio eta gas putzuen hustiaketen ondorioz eragin dituen desastre sozial eta ekologikoengatik. Hemen ere ezaguna da politika eta oligopolioaren arteko ate birakariak ondo olioztatuta izaten dituelako.

Gaur egun Edinor-eko Kontseilari Delegatua den Juan Luis Diego, arlo publikoan aritu izan da bere bizitza osoan. 2020ko urrian utzi zuen Osakidetzako Zuzendaritza kargua, eta, hiru hilabetetara, Edinorrek zuzendaritzan zegoen.

Andoaingo eta eredu berdineko Tokiko Energia Komunitateak aukera galduak suertatu dira. Okerrera ere egin dezake. Andoainen, eguzki plakak teiltatuetan ez ezik, Goiburuko mendi aldean jartzeko proiektua ere aztertu zuten eta nik dakidala behintzat, ez dago oraindik baztertuta. Iruditzen zait hauteskundeak gertu dauden honetan, oso komenigarria izango litzakeela hautagaiek azaltzea zein eredu eta ze proiektu babestu edo arbuiatuko dituzten bere herrietan. Zain gelditzen gara.



Greba aurreko elkarretaratzea. AIURRI

## Greba erabatekoa da Andoaingo TKE lantegian

Astelehenean hasita, Ama Kandida etorbidean dagoen Thyseen enpresa ezaguneko langileek greba orokorrari ekin zioten. Geroztik, geldialdia erabatekoa da. Jomugan dago IPC/KPIaren araberrako soldaten egokitzapena, 2022 osoan etan 2023an aplikatu ez zaiena. CCOO, ELA eta LAB sindikatuek mobilizazio ezberdinak egin zituzten aurreko asteetan, eta enpresaren aldetik erantzun garbirik ezean, greba egitea erabaki zuten. Neurri honekin enpresako giza baliabideen atala mugiaraztea espero dute. Eta, antza, izan dira langileen ordezkarien arteko eta enpresaren ordezkarien arteko elkarriketak.

## Zarataren aurkako panelak Aita Larramendi ikastolan

C2ak kaltetutakoaren plataformak Andoaingo alkateari eskatu dio "atzeratu egin dezala 2022ko azaroaren 4ko Gobernu Batzordean hartutako erabakian, eta eska diezaiola Gipuzkoako Foru Aldundiari egungo trazaduraren gaineko pantaila akustikoak jarritzala, Allurralde kiroldegia eta Aita Larramendi ikastolaren aurrealde osoan". Aldundiak trazadura berria egin behar duela eta, N1 errepidearen arabeko pantailak ezartzea bidezkoena dela ulertzen dute. Errepide-sarera bideratzeko, inguru hartan, lurren lagapena egiteko inolako justifikaziorik ez dagoela diote ere. Ikastolako eraikin nagusia N1aren ondoan dago.

**AGENDAN JARRI  
BEHARKO DA SEKTORE  
ELEKTRIKOAREN  
IZAERA PUBLIKOA  
BERRESKURATZEA**

**UDALERRI  
GEHIENETAN  
EZ DAGO  
KONTSUMO  
AZTERKETARIK**

www.aiurri.eus

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia



Eszenografia prestatu zuten Goikoplazan, plataformaren kanpainaren logoa irudikatuz. AIURRI

# Herri-kontsulta loteslea egitea eskatu dute

C2ak kaltetutakoen plataformak agerraldia egin zuen aurreko asteburuan, asteotan lortu dituzten 3.490 sinaduren berri emateko eta Andoaingo Udalari herri-kontsulta loteslea antolatzea eskatzeko

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Egoitz Uzquiano eta Aitziber Altuna andoaindar gaztek egitasmo berria aurkeztu zuten. Tresna berri bat martxan jartzea eskatu zuten, bertan. Zertarako? Horra, proposamenaren atarikoak: "Proiektu jasangarri berri bat behar dugu N1 eta A15 errepideen arteko loturarako, pertsonen interesak errespetatzen dituen proiektua, helburu ukigarrien dekalogo bideragarri egingo duena".

Eta hori nola egitea proposatzen du C2ak kaltetutakoen plataformak? Herri-kontsulta baten bidez: "Gure ahaleginak N1aren eta A15aren arteko loturaren konponbidea 18 urtetik gorako andoaindar guztiei kontsulta egitera bideratuta egongo dira. Kontsulta legala eta loteslea. Andoaingo Udalak sustatu eta antolatuko duena zuten 2024/2025 denboraldian".

Ez dutelako errepide-sare berria barrera-proiektu itzulez in bat bilakatzea nahi.

Ekitaldi jendetsua izan zen, Goikoplazakoa. C2ak kaltetutakoen plataformak jendea erakartzeko gaitasun handia duela erakusten du. Dozenaka lagun elkartu zituzten, beste behin ere. Ekitaldi korala izan zen, sei pertsonak hartu baitzuten hitza. Eta, adierazpenen artean, Katramila antzerki taldekoek, esketz ezberdinen bitartez, umorez bete zuten ekitaldia.

## Sinadura bilketa

"Plataformak 3.820 atxikipen jaso ditu otsailean helburu betegarrien dekalogora, eta horietatik 3.490 onartu dira guztira, notariotzaren aurrean fede emanez. Nolanahi ere, 330 baztertu egin dira, egiaztapena baliogabetzen duen zenbait arrazoirengatik". Lorpena, beren esanetan. "Entzun eta artatua izango den lorpena izatea espero dugu orain".



Katramila antzerki taldeak esketz ezberdinak egin zituen, ekitaldian. AIURRI



UDALA

## Erreka garbiketa

Andoaingo Udalak Ori ibaiaren ertzeko garbiketa-lana egin zuen, auzolanean. Ibaiak ekartzen ditu hondakin asko, baina herrian bertan ere badira zuzenean Oriara hondakinak botatzen dituzten arduragabeak. Udalak emandako datuen arabera, 500 kilo hondakin inguru atera zituzten erreka bazterretik. Eguraldia lagun zutela ekin zioten lanari, larunbat goizean.



AIURRI

## Andoaindik Villabonara, oinez

Andoain eta Aiztondo aldeko Sarek oinezko martxa antolatu zuen, aurreko larunbatean. Andoain eta Hernaniko dozenaka lagun elkartu ziren Juanita Alkain plazan, eta, Adunan barrena, Villabonaraino iritsi ziren. Bertan, egun osoko ekitaldiak antolatu zituzten. Tartean, herri bazkaria, monologo eta musika emanaldia.





Romero eta Barrenetxea. AIURRI

## Andoaingo mapa morea eraberritu dute

Mapa morea eraberritzeko hausnarketa-prozesuaren ondorioak aurkeztu ditu Berdintasun Sailak

### Erredakzioa ANDOAIN

Mapa Morea eguneratu dute, Andoainen. Udalak hiri diagnostikoaren emaitzak eta plangintza proposamenak aurkeztu zituen, prentsaurrekoan. Mapa morea eraberritzeko hausnarketa-prozesua bi norabidetan egin dela adierazi zuen Petri Romero Berdintasun zinegotziak: "Alde batetik, Andoaingo kale, herrigune eta hornikuntza publikoen kokapenek eta ezaugarriek eguneroko bizimoduaren generoaren arabera eragiten dituzten ondorioak aztertu dira. Eta, bestalde, hiri-plangintzan eta diseinuan genero ikuspegia ez sartzeak eragin dituen akatsak edo desorekak nabarmendu dira, eta, horiek guztiak txertatuta egonez gero, gerta zitezkeen aldaketak imajinatu ahal izan dira".

Erasoen aurreko segurtasuna, babesa, irisgarritasuna, mugikortasuna, ongizatea, bizikidetzeta, ugalketa-lana eta presentzia bezalako kontzeptuak landu dituztela erantsi zuen Sandra Barrenetxea Berdintasun saileko zinegotziak.

Eguneratu duten mapa berriak "Andoain berri bat planifikatzen lagunduko digu, berdintasunezkoagoa, eskuragarriagoa eta seguruagoa", adierazi zuen Mainer Lainez alkateak.

# "Musika eta aldarrikapena uztartzen ditugu"

MARIPI ARRUIZ ETA MERCE BRAU ABESBATZA ERREPUBLIKARREKO ABESLARIAK

Andoaingo Abesbatza Errepublikarrak urtero hartzen du parte frankismoaren biktimen alde egiten den omenaldi ekitaldian

### Xabier Lasa ANDOAIN

Oroituz elkarteak frankismoaren biktimen alde "Goiztirian, ari-maren garraisia" eskulturaren aurrean urtero antolatu ohi duen omenaldi ekitaldian parte hartuko du abesbatzak, urtero legez. Apirilaren 15ean, larunbatarekin, izango da ekitaldia.

**Urtero, abesti berri bat bereziki prestatzen duzue.**

**Maripi Arruiz:** Halaxe da. Aurreko urteetan, besteak beste, *Campadas a mort*, *Justizia*, *Grandola Vila Morena*, *Al Alba* eta beste zenbait prestatu ditugu, guztiak ere esanahi berezia daukatenak. Aurten, Fermin Balentzia abeslariaren *Maravillas* ari gara lantzen. Abestiak *Maravillas Lamberto* 14 urteko Larra (Nafarroa) herriko neska gaztearen historia kontatzen du; 1936an faxistek atxilotuta zuten aita bisitatzera joan zenean, bortxatu egin zuten, eta, ondoren, aita eta biak erail egin zituzten.

**Merce Brau:** Oso abesti hunkigarria da, kontatzen duenagatik eta daukan doinuagatik. Abesti gutxi egongo da alor horretan, hain enblematikoa dena.

**Biktimen aurrean abestu duzue, urtez urte.**

**M. B.:** Bai, frankismoaren zapalketa zuzenean sufritu zutenak edo familiaren bat halakoa daukatenak egon izan dira beti entzule gisa. Zuzeneko biktimak, adinez aurrera doazenak, horiek jartzen dira aurreneko aukietan, eta, horrela, gehitu egiten zaigu gauzak ondo egiteko erantzukizuna. Errespetu handia eragiten digute biktimek, eta ahalik eta saiorik txukunena egiten ahal legintzen gara. Txaloak jasotzen ditugu ordainean, emoziozko arpegiak ere sumatzen ditugu, eta esan beharrik ez dago pozgarria dela guretzat.

**M. A.:** Gora Kaletxiki txarangako musikariak ezinbesteko laguntzaile ditugu. Eta zer esanik ez Joxe Mari Oiartzabal zuzendari



Aurtengo emanaldia apirilaren 15ean izango da. AIURRI

gisa! Egundoko ohorea izan zen Uribesalgo zuzendari edukitzea iraganean, eta berdin orain, Oiartzabalekin!

**M. B.:** Aurten, gainera, Sebastopol dantza taldea gure emanaldia aberastera etorriko da; me-rezi du ikustea bere koreografia ikusgarria eta modernoa!

**Urtean behin besterik ez zarete elkartzeko abesteko.**

**M. B.:** Ez gara profesionalak, eta ez da hori gure bokazioa izan inoiz. Abestea gogoko dugu, eta uste dugu, abesti aldarrikatzaileak biziberrituz, geure aletxo jar dezakegula biktimak gogoratzeko eta justiziaren aldeko mezuak zabaltzeko.

**M. A.:** Ateak beti irekita eduki ditu gure abesbatzak. Partaide izateko, aski da gure asmoekin bat egitea eta entseuetara azaltzea. Astero biltzen gara, bi hilabete lehenago hasita. Une dibertigarriak, gozagarriak eta hunkigarriak. Bizi ohi ditugu.

**M. B.:** Egia esan, urtero, omenaldi-ekitaldiaren ostean, jendea etortzen zaigu, esanez, zein ekimen polita den gurea eta zenbateko inbidia pasatzen duten ezin parte hartzeagatik. Hurrengo urterako gonbidatzen ditugu,

baina gero eguna iristen denean, gureganako pausoa ematea kostatzen zaio jende horri.

**Memoria historikoaren berreskurapenean makina bat liburu, dokumental, film, disko sortu dira. Abeslari eta musikari banda, ordea, ez da ohikoa.**

**M. B.:** Egia da hori, eta ez dakigu zehazki zergatik ote den. Dakiguna da gure ibilbidean, Irun, Donostia, Elgetatik deitu izan digutela saioa egiteko, eta guztietan harridura agertu izan digute abesti antifaxistak eta borrokalariak abesten dituen talde bat existitzeagatik.

**Bazkaria antolatu duzue, eta baita izena emateko epea ireki ere.**

**M. B.:** Egun osoko ekitaldien barnean sartu izan dugu beti bazkaria ere, izan Kale Nagusian, izan gaztetxean, izan herriko jatetxeren batean. Aurten, Etxeberrietako Jai Batzordeak bazkaria antolatzeko gogoia azaldu du, eta eskertuta gaude biziki eurekin. Kotoi elkartearen prestatuko dute eta apirilaren 10a baino lehen eman behar da ize-na Itsaso tabernan.

**Noiztik kantari, abesbatza gisa?**

**M. A.:** Historian atzera joanda, ezinbestekoa da aipatzea Jokin

Pavo. Itzala tabernaren garaian Errepublika, Portugaleko Apirilaren 25eko Krabelinen iraultza eta beste hainbat prozesu historiko askatzaileak gogoratzeko argazki erakusketak, hitzaldiak eta antzeko ekitaldiak antolatu ohi zituen. Giro horretan, bertako zenbait bezero Errepublikako aro historikoaz mintzatu ohi ginen maiz. Amorrua ematen zigun balio demokratikoak (sufragio unibertsala, berdintasuna, justizia...) ekarri zituen Errepublika eta ondorengo errepresio frankista, zeinen ahaztuta eta zeinen ahanztarazita dauden. Horrela, Errepublikaren eguntzat hartzen den apirilaren 14arekin batera, kalejira txikiak egiten hasi ginen, banderak lau haizetara zabalduz, musika joz eta borroka abestiak berrituz...

**M. B.:** Ekimen txiki eta xume hori, jada hasita zegoen fusilatuen alde, 2006an eskultura inauguratu, eta, geroztik, Oroituz elkarteak omenaldiak antolatzeari ekin aurretik. Nolanahi ere, handik laster, abeslariz eta musikariz osatutako abesbatza sortu zen. Fernando Uribesalgo musikariak Gora Kaletxikiko musikariekin batera, bultzada bikaina eman zion abesbatzari, 2016an hil zen arte. Lekukoa Joxe Mari Oiartzabalek hartu zuen.

**Segitzeko indarrez?**

**M. B.:** Injustizia, monarkia, faxismoa eta frankismoa dituzte jomugan gure kantutegiko kanteak, eta, beraz, gaurkotasan osokoak dira oraindik. Mugitu eta kalera ateratzeko arrazoi ugari dauzkagu guztiok oraindik ere, frankismoaren biktimei egia eta justizia ukatzen zaielako, batetik, eta, bestetik, gaurko gizartearen mota askotako injustiziek bere horretan jarraitzen dutelako. Horrenbestez, Abesbatzako kideek gogoia eta motibazioa daukagun bitartean, abesten segiko dugu.

**M. A.:** Urtez urte, halabeharrez joan zaizkigu zenbait kide (Iosu Olazabal, Zorione Irigoras, June Aldaz, Pako Bidasoro, Jose Luis Fernandez Fitero, Fernando Uribesalgo, Luxio Aranburu...) eta betiko entzuleen artean biktimei ugari. Etsigarria da hori. Badago zer aldarrikatua oraindik. Hortaz, ondo legoke gure hurrengo belaunaldiak aurrekoan lekukoa poliki-poliki hartzen joango balira.



DBHko eraikinaren maketa zabaldu dute, prentsa-ohar bidez. UDALA

# Urtebeteko epean eraikitzen hasteko konpromisoa hartu du Jaurlaritzak

Martxoaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzekin egin zuten bileraren ostean iritsi da iragarpena. Egape Ikastolako komunitatean aspalditik desio zen iragarpena, datozen hilabeteetan gauzatuko dena

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA  
Mantso bada ere, aurrera darrai Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikina altxatzeko prozesuak: badirudi, urtebeteko epean, eraikinaren obrak hasiko direla. Hori da Hezkuntza

Sailak hartu duen konpromisoa. Ea ez den, bete gabe gelditzen den enegarren iragarpena. Esanak esan, horixe jakinarazi zuen Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak Alfredo Ruiz Huerga Azpiegitura, Baliabide eta Tek-

nologien zuzendariarekin batera, Urnietara egindako azken bisitan.

Hain zuzen ere, martxoaren 22an, Guraso Elkartearen eskakizunez, Urnietako Udala, ikastetxeetako zuzendaritza Jaurla-

## Bi harmakadatan luzatutako prozedura

Aspaldikoa da Urnietako Udalarri eta Hezkuntza Sailari Bigarren Hezkuntzako eraikin berria egiteko sartu zen lehen eskaera. 90. hamarkadara joan beharko genuke atzera. Harrezkero, hainbat agintaldi tarteko, makina bat bider mahaigaineratutako auzia izan dira, batetik, Egape Ikastolako BHI eraikinaren egoera tamalgarrria zein arriskutsua eta, bestetik, ikastetxe berria eraikitzeke premia. Premia, beharra. Horixe baita, mendelaurdeneko ibilbidean, herriko euskal eskola publikotik igaro diren ikasleen gurasoek nahiz zuzendaritza-taldeak, behin eta berriro nabarmendu nahi izan dutena.

Sarritan, mesfidantza eta nekea eragin dio prozesuak Egapeko hezkuntza-komunitateari, aurrera egiteko bidean aurkitutako oztopoengatik, baita aurre-rapausoak emateko erritmo mantsoagatik ere. Nolanahi ere, beti izan dute lehentasun eraikin berria eta, buru-belarri aritu dira elkarlanean.

Hori horrela, azken agintaldian, abiadura hartu du kontuak, bereiziki, Egape Ikastolako eragile taldeak egindako akuilu lanagatik. Hezkuntza Sailera iritsi zen kezka berriro ere 2020. urtean, eta, gaurdaino, hamaika aldiz bildu dira udaletxean Guraso elkarte, eskolako zuzendaritza-taldea eta Urnietako Udalean ordezkariak duten alderdi politikoak. Ikuspuntu eta iritzi kontrajarriak tarteko, astiro egin du aurrera auziak.

Ezusteko atsegina da, horrenbestez albistea: Hezkuntza Sailak, urtebeteren buruan, eraikuntzalanak hasteko konpromisoa hartu du. Hortaz, izapide, agiri eta epeen aldreskeriaren korapiloak askatzen ari dira, pixkanaka.

ritzak nahiz elkarte bera bildu ziren. Bertaratutakoek, Ruizen eta Bildarratzen azalpenak medio, Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikin berria eraikitzeke prozesuan ematen ari diren urratsak eta azken berrikuntzak ezagutu zituzten: Urnietako Udalak zabalduko oharra dioenez, proiektua onartzeaz dago, azken detaileak baino ez baitira geratzen lotzeko: "Eraikin berria eraikitzeke proiektuak 10 milioi eurotik gorako kostua izango du, eta lanen iraupena bi urte ingurukoa izango dela aurreikusten da".



Urnietako  
udala



Kadete mailako Urkaregi Amasako Hika txakolindegiko helmugara iristen. Penditza gogorra igoz amaituko da etapa. **AJURRI**

# Itzuliaren etapa erabakigarria Andoaindik eta Urnietatik gertu

**TXIRRINDULARITZA** Astelehenean abiatuko da Euskal Herriko Itzulia Gasteiztik, eta larunbatean bukatu Eibarren; Hika txakolindegian bukatuko da etapa erabakigarria izan bide dena. Gertu, oso gertu, etapa zirraragarriaz gozatzeko aukera izango da

## Andoni Urbistondo URNIETA

Lau egun baino ez dira falta Euskal Herriko World Tour mailako proba entzutetsuena hasteko. Apirilak hiru dituela hasiko da Itzulia Gasteizen, eta sei egun geroago bukatu Eibar hirigunean. Labastida, Leitza,

Amasa-Villabona, Santurtzi, Amorebieta-Etxano eta Eibar izanen dira etapa bukaerak, eta Aiztondo eta Beterri bailaratan barrena ibiliko den etapa erabakigarria izan bide da, dauzkan zailtasun ezezagunengatik. Guzti horren berri zehatz emango

du Aiurrik, Aiurri.eus webgurearen bitartez.

Ibilbideko nobedade garrantzitsuena, hauxe: ez da erlojupekorik izango. Itxuraz proba antolatzaileen artean zabalitzen ari den joera da, bakarkako lanean espezialista petoek lortzen

dituzten aldeak gehitxo izaten direla, ondoren, aurkariak horiek erabat murrizteko. Alegia, erlojupekoan iaioa denak bere espezialitatean lan txukuna egin eta aste bateko itzulia irabazteko aukera handia duela, bospasei egunetan ez dagoelako terreno nahikorik bakarkako lanean iaioak ez direnak pilotutako atzerapenari buelta emateko. Egunez egun emango den borroka indartu egiten du erlojupekorik ez egoteak, garaipena segundo gutxi batzuen bueltan erabaki baitaiteke.

Itzulia gogorra eta gaiztoa izango da. Etapa guztiek izanen dute ezustekoren bat, eta oilarrek egunero egon beharko dute zer gerta adi. Akats txiki bat nahikoa izan liteke itzulia irabazteko lehiatik at geratzeko, eta exigentzia maila oso handia izanen da.

## Apirilak 3, astelehena

Gasteizen hasiko da itzulia, astelehenean. Arabako Bastidan bukatuko da, zirkuitu batean. Opakua izanen da puntuak banatuko dituen mendate bakarra, baina azken 50 kilometroetan gorabeherak etengabeak dira. Baita azken bi kilometroetan ere, Bastida herri guneko helmugan.

## Apirilak 4, asteartea

Bigarren etapa Nafarroan hasi eta bukatuko da. Hego mendebaldean hasi, Bianan, eta ipar mendebaldean bukatu, Leitza. Bigarren saioa lehenengoa baino bihurriagoa da, bost mendate baititu: Etxauri, Uitz, Basakabi Leitzatik, Saldias eta Basakabi berriro, bigarren igoeran Doneztebe aldetik. Itzuliko etapa luzeena ere bada, ia 200 kilometro. Ihesaldietarako proposa, tranpatxo gaiztoa du bigarren etapak: Saldias 2.3 kilometroko malkarra da, %9.2ko batez besteko pendizarekin, eta nahiko errepide estua, bihurria. Saldiaстик Doneztebera txistu batean jaitsiko dira, eta Leitza-ara buelta plater handia kendu gabe igoko dute tropeleko onenek, Basakabin gora.

## Apirilak 5, asteazkena

Hirugarren etapak Aiztondo, Beterri eta Tolosaldea bailarak zeharkatuko ditu bete-betean. Errenterian hasi eta Andazarraten barrena iritsiko da Asteasura. Lehen kiku bat egingo

du ibilbideak Amasa-Villabona eta Anoeta arteko baserri bideetan. Tropelari dator kionaren abisua baino ez da izango. Altzo, Orendain eta bigarrenez Altzo igo ondoren Tolosa zeharkatu eta iparreko klasiko gaiztoen tankera hartuko du etapak. Sarasola sagardotegira daraman igoera eta jaitsiera bihurriak, aurrena. Zizurkilgo kanposantura daraman bide estua ondoren, eta Aduna herrixkara igoera batere atsedetik gabe. Adu-nara doan errepidea zabala da, baina kilometro luze batean daukan %10eko batez besteko pendiza ez da desagertzen. Irizar-ko biribilgunera jaitsi, eta bi kilometrotan Amasa-Villabona-ko hiri gunea, eta Hika Txakolindegiko aldapa iritsiko dira. Huy-ko horma labur bezala definienezake, 300 metroan %20 ko pendizak baititu. Igitagintzan murgilduko da World Tour tropela.

## Apirilak 6, osteguna

Laugarren etapa Santurtzin hasi eta bukatuko da. Arabako Aia-ara eta Bizkaiko Enkarterri bailaratan ibiliko da hara eta hona, eta horrek beti esan nahi du adi ibili beharreko etapa dela, paraje haietan ez baitago arnasa hartzeko aukerarik. La Asturiana izan bide da etapako epaile, helmugatik 15 kilometro eskasera dagoen bigarren mailako mendatea.

## Apirilak 7, ostirala

Bosgarren etapak dirudi denetan errazena, edo zailtasun apalenekoa, profilarri erreparatuta, baina desnibel metatuaren datua ikusi eta bestela pentsa daiteke, Amorebieta-Etxanon hasi eta bukatuko den saioak ia 3.000 metroko desnibel metatua baitu. Etapa honek ere zirkuitu batean izanen du bukaera, eta helmugatik pasa ostean ezustekoak gertatzeko moduko muinotxo ugari daude.

## Apirilak 8, larunbata

Seigarren etapa klasikoetan klasikoa da, baina aldaketa garrantzitsu batekin. Etapa ez da Arrategi Santutegian bukatuko, bertan ehiza ekitaldia dagoelako eta ezin delako azpiegitura erraldoirik kokatu Itzulian ohikoa izan den helmugan. Mendatez jositako 140 kilometro izango dira, Eibarren hasi eta bukatu: lehen mailako Azurki,



Krabelin eta Izua, bigarren mailako Gorla eta hirugarren mailako Elkorrieta, Trabakua eta Urkaregi. Tropela txikitzeke terrenoa, sobera. Etapa erabakigarriena izango ote? Julian Eraso antolakuntza taldeko buruak Amasa-Villabonako etapako ibilbidea prestatu zutenei esandakoa gogoratuko dugu, badaezpada, norberak erabaki dezan zein den etapa gogorrena: "Hika Txakolindegitik ateratzen den podiuma ez da sobera aldatuko Eibarren". Jasoa geratzen da.

#### Parte hartzea eta eguraldia

Itzulia World Tour mailako lehiaketa da, eta munduko 18 talde onenak Gasteizeko abiapuntuan izanen dira. Izar gehiago edo gutxiagorekin, baina 18 talde indartsuenak. Baite Continental mailako bost taldeak ere, tartean Euskaltel-Euskadi, Caja Rural eta Kern-Pharma Euskal Herriko taldeak. Azken orduko baieztapenen zain, Jonas Vingegaard danimarkarrarena izanen da zaindu beharreko gorpila, Tadej Pogacar ez delako Itzulian ariko. Bikingoak gertutik zaindu beharko du INEOS taldeko blokea, Daniel

Felipe Martinez kolonbiarra, batez ere. Ion Izagirre, Richard Carapaz, Esteban Chaves, David Gaudu, Simon Yates, Enric Mas, Mikel Landa, Pello Bilbao eta Adam Yates ere Top 10ean ibiltzeko hautagai sendoak dira, eta espero ez den norbait ere azalduko da.

Eguraldia ere gertutik zaindu beharko da, batez ere eurria bada. Errepideak bustita badaude hainbat oilarrek hanka altxatzeko tentazioa izan dezakete, erronka handiagoei begira arriskurik ez hartzeko. Itzulia has-teko egun batzuk falta direla, iragarpen zehatza kolokan dago, baina itxuraz lehorretik eta freskotik izango du asko hurrengo asteak. Litekeena da ipar ekialdeko haizeak, frantzipar hotzak muturra sartzea asteazkenetik aurrera, eta horrek Europako haize hotza garraiatzen du Euskal Herriraino.

### "HIKA TXAKOLINDEGITIK ATERATZEN DEN PODIUMA EZ DA SOBERA ALDATUKO"



Hirugarren etapa Beterri-Buruntzatik oso gertu amaituko da. ITZULIA



Itzulia  
Aiurri.eus webgunean

Andoni Urbistondoren eskutik

**ETAPA BAKOITZAREN KRONIKA**

www.aiurri.eus



Eñaut Urkaregi Sanz kadete mailako Danena KE txirrindularia da, hirugarren etapako ibilbidean barrena. AIURRI

## "Osagai arriskutsu asko ditu Amasa-Villabonako etapak"

Eñaut Urkaregi Sanz (Zizurkil, 15 urte) kadete mailako txirrindulariak Itzuliko hirugarren etapako azken 25 kilometroak egin ditu Aiurri-rentzat. Mallorca aldean ibili da lehiatzen, eta astelehenean atsedean eguna bazeukan ere, prestutasunez egin ditu 'aktore' lanak. Jon aitarekin azaldu da Anoetara, baina aitzak eskualdeko bailaretako malkarretan semea laguntzeari uko egin dio.

#### Ondo ezagutzen dituzu errepideok, Eñaut, ze iritzi daukazu?

Etapa bihurria da, eta osagai arriskutsu asko dituela esango nuke: errepide estuak, bihurgune gaiztoak, aldapa motzak baino pendiza handikoak, errekupeziaroko astirik ez apenas... Mina egingo duelakoan nago, eta eguraldia txarra bada, triskantza handia sortuko du. Kokapena erabakigarria izango da, eta tropel buruan egotea funtsezkoa izango da.

**Asteasuko Sarasola sagardotegiko aldapa, Zizurkilgo kanposantu zaharrera daraman bidea, Aduna eta Amasan dagoen Hika txakolindegiko aldapa ditugu menuan.**

#### Zer aurkituko du tropelak lau koska horietan?

Komeriak. Sarasola sagardotegikoak kilometro erdi gaiztoa dauka benetan, %15etik gorako pendizak, eta jaitsiera ere oso teknikoa da: estua, aldapa-gainalde pare bat, eta 180 graduko bihurgune gaizto samarra. Tropela asko murritzuko da, eta zaila izango da Olentzoko zuzen gunera 40-50 lagun iristea. Sarasolan atzean geratzen denak ez du aurrean sartzeko aukerarik izango, kilometro eta erdiko tarteak bakarrik baitago jaitsiera hasi bitarte. Zizurkilgo kanposantuko aldapa ere oso bihurria da. Sarasolakoa baino motzagoa, akaso, baina malda handikoa. Zizurkil goikora sartzeko errepidean adi ibili behar da, eta Adunara daraman jaitsiera eta kilometro eskaseko ordeka txistu batean egingo ditu tropelak.

**"KOKAPENA ERABAKIORRA IZANGO DA. TROPEL BURUAN EGOTEA FUNTSEZKOA DA"**

**"ETAPA GUZTIEK DUTE ZAILTASUNA BAINA HONEK MIN EMANGO DU"**

#### Aduna ere ez da samurra.

Ez, baino errepide zabala dauka. Aduna atarira 20 bat lagun iritsiko dira, asko jota, eta onenen zaintza saihesteko toki polita izan liteke, gero Hika Txakolindegian gora ezinezkoa izango delako.

#### Nolako da Hika?

Gogorra, eta laugarren aldapa. Mina egingo du. Segundo sorta ederra irabaz dezake indartsu iristen denak. %20tik gorako maldak ditu azken 300 metroetan, eta horrek mugara eramaten du edonor.

#### Jumbo Visma taldeko kirol zuzendaria bazina, eta zure liderra Jonas Vingegaard balitz, zein estrategia prestatuko zenuke?

Eguneko ihesaldian ordezkariren bat sartu, eta Sarasolan eta Zizurkilgo kanposantuko bidean eraso jo. Tarteko ordekan aurretik doan taldekidearen laguntza jaso, eta azken aldapan, tarte handitu.

#### Erabakigarria izango al da Amasa-Villabonako etapa Itzuliko garailea erabakitzeke?

Baiezkoan. Itzulian etapa guztiak dute zailtasunen bat, baina bukaera honek min handia egingo du.



Eneritz Arruti andoaindarra, behean, eskuinetik hasita lehena. POTRONKO

# "Ezarrri genituen aurreikuspen guztiak gainditu ditugu"

**ENERITZ ARRUTI ANDOAINGO TIRATZAILEA, SOKATIRAN**

**SOKATIRA** Iragan urtean egin zuen jauzi sokatiraren mundura eta, jada, maila gorenean lehiatzeari ekin dio; aste batzuk atzera, lorpen ikusgarriekin itzuli zen etxera

**Mikel Arberas ANDOAIN**

**Zer dela eta hasi zinen sokatiran entrenatzen eta lehiatzen?**

Sokatiraren munduan murgiltzeko erabakia ez zen bat batekoa izan, prozesua lehenagotik dator. Pandemia garaia baino astebete lehenago kirola probatzeko aukera eduki nuen Iruñean, ikas-

ketak egiten nabilela. Lagun bat sokatiran ibiltzen zen eta aipatu zidan gai ikusten ninduela kirol horretan aritzeko. Egia da, hasiera batean, txantxat hartu nuela lagunak esandakoa, baina, behin eta berriro probatzeko esaten zidanez, pausoa ematea erabaki nuen.

Esanak esan, erakargarria egin zitzaidan sokatira, eta berriro ere nahi nuenean entrenatzera etortzeko gonbita zabaldu zidaten, nahiz eta ziurtasun falta eduki. Zorritzarrez eta kasualitatez, egun batzuetara pandemia garaian sartu eta itxialdian murgildu ginen.

Iragan urtean, Larraungo bailaran, sokatira talde bat sortzeko asmoa zegoela esan zidaten, eta ama nafarra izanik, ni ere kontuan hartu ninduten. Hori entzunda eta pandemia igarota, interesa piztu zen nire barnean; herritar gazteen artean saretzeko eta jende berria ezagutzeko bestelako aukera bat zela ikusi nuen. Azkenean, 15 pertsonako talde polita sortu zen, eta biltzen aritu ginen proposamen horri bidea nola egin ikusteko. Hasiera batean, materialik eta entrenatzailek ez genuenez, Bete-lutik, ondoko bailaratik deitu ziguten eurekin entrenatzen hasteko, materiala eduki eta jende faltan zeudelako. Horiek horrela, ohartu ginen, Bete-lun sokatira talde bat egonda, ez zuela zentzurik ondoko bailaran beste talde bat sortzea, gaur arte. **Euskal kulturarekin estuki lotutako kirola den arren, ez da oso ohikoa sokatira praktikatzan duten gazteak aurkitzea...**

Egia da ez dela oso ohikoa sokatiran lehiatzen duten kirolariak aurkitzea, agian, Gipuzkoan, Ibarra delako talde bakarra. Hala ere, Nafarroan sokatira susperraldia bizitzen ari da, batez ere, gaztetxoan artean eta, gainera, maila onean.

**Dirudien bezain gogorra al da sokatira?**

Kirol guztiak dute bere zailtasuna eta gogortasuna. Nire kasuan, eta, beste kirol batzuk praktikatu ostean, sokatiran erresistentzia gain, sufritzeko gaitasuna ezinbestekoa da; hau da, mina edukita ere, tiratzen jarraitu behar da, talde oso baten zama kirolari bakoitzaren eskuetan baitago.

**Nolakokak izaten dira entrenamenduak eta non egiten dituzu?**

Irailtik hona, Ibarra eta Bete-lun entrenatzen aritu naiz. Normalean, pare bat orduko saioak egin ohi ditugu eta, ondoren, fisikoa norberak bere kabuz entrenatzen du; esaterako, mendian, kiroldegian edo bestelako lekuetan. Azken aldiran, munduko txapelketari begira, pisu handiarekin entrenatzen aritu gara, gehien bat. Berotzeko, tiraldi batzuk egiten ditugu polean, pisu bazuarekin; beroketaren ostean, zama igotzen joaten gara. Esaterako, bost minutuko tiraldi luzeak simulatzen aritu gara, polean zama handia jarrita (70-80 kiloko pisua pertsonako), eta denbora horretan altxaldi ugari egiten.



Eneritz Arruti, lanean. POTRONKO

Horrez gain, tiraldi motzekin ere entrenatzen egon gara, bi minutuz eta pisu handiagoarekin.

**Munduko txapelketan lehiatzen ari zara. Zer nolako esperientzia izan da?**

Sekulako esperientzia izan da, zentzu guztietan. Oso aberasgarria izan da, batetik, beste taldeengandik ikasteko; estrategiak eta lehiatzeko moduak, esaterako. Bestetik, Ipar Irlandan egonagatik, bizipen berriak jasotzeko bidaia ere izan delako. Pozez txoratzen itzuli gara, eta, gainera, domina batzuekin.

**Zein mailatan lehiatu zara?**

Maila absolutuan lehiatzen aritu naiz. Taldearen pisua kontuan hartzen dute, eta kategoriako pisura hurbiltzearekin batera, gainontzeko taldeekin parekatuta egoteko aukera gehiago daude, beraz, berebiziko garrantzia du taldean.

Horrez gain, oso berezia izan da, nazioka, Euskal Selektzioa ordezkatu dutenek urrezko dominen bat lortzea, maila bereziki altua erakutsita. Hori gutxi balitz, lehen bi egunetan euskal taldeek elkarren artean zuten lehia, giroa eta horren harreman ona ikustea pozgarria izan da. Lehiakortasun sana, euskalduna eta, neurri batean, lagunartekoa.

**Lorpen ikusgarriekin itzuli zarete Euskal Herrira...**

Hasieran ezarrri genituen aurreikuspen guztiak gainditu ditugu. Nork esango zidan Ipar Irlandan egin zen munduko txapelketatik bi brontzezko dominekin itzuli ginenik... Hitzez oso zaila da azaltzea; momentu azalduzina bizi genituen, bai pertsonalki eta, bai taldean. Gure lehen munduko txapelketan horrelako lorpenekin itzultzea, izugarria da. Emozioak dantzan genituen.

# "Andoaindarrekin ospatu nahi dugu mendeurrena"

**JIMMY BROSA** EUSKALDUNAKO LEHENDAKARI-ORDEA

**FUTBOLA** "Aste urdina" ospatzen ari dira egun hauetan, mendeurrenako zikloaren barnean. Eguraldiaren baitan badago ere, larunbatean eragile askok parte hartuko dute

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

**Ekitaldi handia antolatu duzue larunbat honetarako. Izan ere, herri-eragile ugari aipatu dituzte. Besteak beste, Lebiton konpartsa, Urki dantza taldea, txistulariak, txalapartariak, bertsolariak... Zertan datza larunbatekoa?**

Euskalduna Andoaindara klubean herriarekin batera ospakizun bat egin nahi genuen, eta afitxan agertzen den eragile-zerrenda hori asmo horren ondorio da. Mendeurrena andoaindarrekin partekatu nahi dugu. Andoaingo eragileen bitartez egingo dugu. Ospakizun bat izango da, parte-hartzailea. Eskertza adierazi nahi diegu eragile horiei guztiei, nahiz eta [barre egiten du] parte hartzea eskatzen diegun. Herria egin nahi dugu.

Futbola da, egun, jarduera nagusia gizarte bizitzan. Baina, Euskaldunan, beste asmo bat izan dugu, eta mendeurrenean saiatu gara futbolaz haragoko ospakizunak egiten.

**Eragileak kalez kale ibiliko dira. Zer aurreratu daiteke?**

Toki ezberdinetatik abiatuko dira eta denek norabide berbera izango dute: Ubitarte futbol zelaia. Lebiton konpartsa eta dultzaineroak Basterotik abiatuko dira, Kale Nagusirantz.



Jimmy Brosa. AIURRI

Zuena dantza taldekoak Extremadura kaletik irtengo dira, eta Maizorrik, Punttukak eta Kantujirak lehen saioa Ama Kandiandagoen San Juan Bataiatzailean egingo dute. Olagain Txistulari taldekoak Etxeberrietatik abiatuko dira. Urki dantza taldekoak eta trikitilariak Kontzejupean elkartuko dira.

Eguerdiko 12:00tan abiatuko dira, bakoitza Andoaingo toki ezberdinetatik eta 13:00tan Ubitarten guztiak elkartuko gara.

**Futbol zelaia agertoki bilakatuko duzue, beraz.**

Ubitarteko harmailak ez ezik, futbol zelaia ere jendez bete nahi dugu. Jendaurreko adierazpena egingo dugu, bereziki eskerrak emateko.

**Eguraldiak zeresana izango du.**

Bai, halaxe da. Plan bakarra daukagu. Bistakoa da euriarekin hainbat talderi parte hartzea ezinezkoa izango zaiola. Aurrekuspenen zain egon beharko dugu.



Amantegi mertzeriari eskertza adierazi zion Euskaldunak. AIURRI

## Kalejira, kalez kale

Euskalduna taldeko batzordekideak, Gora Kaletxiki txaranga lagun hartuta, kalez kale ibili ziren astearte arratsaldean. Musika doinuekin kaleak alaitu zituzten, eta, era berean, Euskaldunak hainbat merkatariri eskerrona adierazi nahi izan zien. Oroigarri bana eman zieten hainbat dendari. Txarangako partaideak, Euskaldunaren zapi urdina jarrita, musika joz aritu ziren Zumea plazan hasi eta Kaletxikiraino.

Aste urdinaren hasiera izan zen, hurrengo egunetarako iragarritako zituzten beste bi hitzorduen aurrekoa.



Gora Kaletxiki txaranga kalez kale ibili zen, astearte arratsaldean. AIURRI

## "Ibili Andoain", Ubitarten

Ez ohiko Ibili Andoain izan zen asteazkenekoa, Euskaldunaren mendeurrena aintzat hartu baitzuten. Adinean gora doazenen txangoa egin zen udalerrian barrena, Ubitarte zelaian amaitzeko. Bertan, Alberto Agirre abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Aste osoan, askotariko kultur eragileen babesa jasotzen ari da Euskalduna taldea.



AIURRI



AIURRI

## Duatloi eta mendi-lasterketa ezberdinetan aritu da Zumeatarra

**DUATLOIA** Klubak Bioracer.es webgunean arropa salmentan ipini duela iragarri du

### Aiurri komunitatea

Zumeatarra kirol elkarte / ANDOAIN

Pasa den asteburuan, Zumeatarra kirol taldea Duatloian zein mendi-lasterketan lehiatzen aritu zen.

Iñigo Duarte Arbizon ospatu zen drafting gabeko duatloian parte hartu zuen. Gure kirolaria, triatloi denboraldiari begira, azken berotuak bilatzera abatu zen, eta lasterketa txukuna egin ez bueltatu zen etxera. Sentsazio onekin eta lortutako emaitzarekin pozik amaitu zuen lasterketa. Ezin zuen bestelakoa izan, sailkapenean 9. postua lortu ondoren!

Bestalde, Koldo Velascok eta Maria Rengelek Usansoloko bikotekako duatloian parte hartu zuten. Giro ezin hobea egon zen lasterketa osoan. Lasterkariak lortutako emaitzarekin oso pozik bueltatu ziren Andoain aldera.



Usansolon aritu ziren. ZUMEATARRA

Mendi-lasterketari dagokionez, Axier Etxeberria Talaia Mendi lasterketan parte hartu zuen, marka txukuna egin.

### Arropa, salmentan

Klubak salgai ipini du materiala Bioracer.es webgunean.

## Mendizabal txapelkunorde

**PILOTA** Laboral kutxa Masters finala galdu zuen andoaindarrak, ez zuen ohiko maila erakutsi. Arrizabalaga-Oses bikotea Aldai-Mendizabal baina hobea izan zen (22-14). Lehen zatian, borroka egin zuten, baina, bigarren zatian, luze egin zitzaizen. Jendetza elkartu zen Aritzabalalde pilotalekuan. Aukera berriak izango ditu Mendizabalek, aurrerantzean.



MASTERCUP

## Berria txapelketako finalaurrekoak, erabakita

**ERREMONTEA** Larunbat arratsaldean jokatuko dira Galarretan. Finala gertuago dago

### Erredakzioa URNIETA

Goikoetxea V-Aiestaran eta Zaldua II-Odei bikoteek jokatu dute finalaurrekoetako bat, asteburu honetan. Eta, bestea, Gurrutxaga-Zaldua I eta Irazu-Zubiri bikoteek.

Loitegi-Eskudero bikoteak aukera zuen finalaurrekora sailkatzeko, baina, puntuaketa medio, kanpoan geratu dira. Ezin aipatu gabe utzi Eskudero andoaindarrak partida bikaina egin zuela, sakean eta tanteotan jokaldi bikainak egin.

Goikoetxea urnietarra Aiestaranekin batera ariko da, finalaurrekoetan. Aurreko asteburuan, Urrutia eta Apeztearen aurka nagusitasuna erakutsi zuten.

Larunbat honetan, arratsaldeko 16:30ean hasiko dira partidak.

### Estelarra

Ansa urnietarra izan zen eguneko izarra, 23 tanto egin zituelako. Azpirozekin batera garaipe erraza lortu zuten (29-40) Ezkurra II-Zaldua bikotearen aurka.

Asteburu honetan partida berria iragarrita dago. Ansa II-Barrenetxea IV bikotea Urriza-Larrañagaren aurka ariko dira, Galarretan.



Infantil mailako Plastigaur-Ganbara taldea. AIURRI

## Garaipen berriak

**SASKIBALOIA** Aterpe juniorrak eta Plastigaur infantilak garaile izan ziren. Asteburuan, bi taldeak etxean ariko dira

### Erredakzioa ANDOAIN

Garaipenak etxetik kanpo lortu zituzten: Mundarro-Aterpe (61-65); Luberrri-Plastigaur (29-33).

### SASKIBALOIA

#### ASTEBURUAN

**09:00** Aterpe juniorrak-Goierri / Lar. 1  
**10:30** Plastigaur infantilak-Ordizia / Lar. 1

## FUTBOLA Jubenil mailako taldea, bigarren postuan

Jubenilen Ohorezko Mailako 24. jardunaldian, Euskaldunak Mondragon garaitu zen Ubitarten (2-0). Garaipenaren bidea berreskuratu dute, beraz, bigarren postua finkatzeko. Asteburuan, Tolosaren zelaian ariko dira.

### FUTBOLA

Ohorezko jubenil maila

#### SAILKAPENA

1 ANAITASUNA	50 puntu
2 EUSKALDUNA	45 puntu
3 ZUMAIAKO	41 puntu
4 ORDIZIA	38 puntu
10 tolosa	32 puntu

## ESKUBALOIA Leizaran Ernioeren porrota, Allurralden

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Soraluze taldearen aurka ezin izan zuen garaipena eskuratu (26-28). Asteburuan, sailkapenean azken-aurreko postuan dagoen Egiaren kantxan ariko dira.

### ESKUBALOIA

1. lurreldeko senior maila, gizonetakoak

#### SAILKAPENA

1 ORDIZIA	33 puntu
2 UROLA	30 puntu
3 SAIEKO	29 puntu
4 LEIZARAN	28 puntu
11 EGIA	8 puntu

**berria** | **FINALAURREA**

ERREMONTEA TXAPELKETA 2023  
zuk badakizulako


APIRILAK 3 LARUNBATA  
16:30ETIK AURRERA

GALARRETA JAI ALAI HERMAN

BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)  
ZALDUA II - ODEI vs  
GOIKOETXEA V - AIESTARAN VI

BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)  
GURRUTXAGA - ZALDUA I vs  
IRAZU - ZUBIRI

2. PARTAIDA (35 TANTO)  
URRIZA - LARRANAGA vs  
ANSA II - BARRENETXEA IV



Etxarri estatu mailako txapelketan. ETXARRI

## Maila bikaina eman du Etxarrik estatu mailako txapelketan

**PISTA** Omnium proban txapeldun-orde izan zen, binakakoan. Hirugarren, berriz, banakakoan

### Erredakzioa ANDOAIN

Comunitat Valencianako Leyre Almena eta Leyre Toledo bana-ko eta binakako proban nagusi izan dira, kadete mailako Espainiako txapelketako omnium proban. Haien nagusitasuna ezbaian jartzera gerturatu den

txirrindularia Andoaingo eskolako Izaro Etxarri izan da. Beste behin ere maila bikaina eman du. Ez zen asteburuko albiste on bakarra izan. Irati Aranguren Debako lasterketan nagusitu zen, kadete mailako proban. Mutilekin batera lehiatu ziren.



Euskalduna taldea, denboraldi hasierako argazkian. EUSKALDUNA

## Deusturen zain dira, Orioko eta Sanpedrotarra garaitu ostean

**FUTBOLA** Liga 24. jardunaldira iritsi da eta Andoaingo taldea sailkapenaren aurrealdean finkatu da 770

### Erredakzioa ANDOAIN

Sanpedrotarra eta Orioko taldeen aurkako garaipenen ostean, Euskalduna Gorengo mailako Ligan hirugarren postuan da. Asteburuan bigarren postuan sailkatuta dagoen Deusto hurbilduko da Ubitartera.

### FUTBOLA

#### SAILKAPENA

1	REAL UNION	58 puntu
2	DEUSTO	51 puntu
3	EUSKALDUNA	44 puntu
4	TOURING	42 puntu

#### ASTEBURUAN

17:00 Euskalduna-Deusto / lg, 2

## FUTBOLA Bigarren porrota jarraian, igoera fasean

Bigarren partida jarraian galdu du Urnieta taldeak. Ligaxkako bolada ona berreskuratu ezinik dabilta, eta gol asko jasotzen ari dira. Asteburuan, Lengokoak taldearen aurka galdu zuten, etxean (1-4). Asteburuan, Sanpedrotarraren zelaian ariko dira.

### FUTBOLA

Eregional maila, igoera fasea

#### SAILKAPENA

1	LANDETXA	16 puntu
2	URNIETA	15 puntu
3	LENGOKOAK	12 puntu
4	MARIÑO	11 puntu

## ATLETISMOA Ohiko korrikalariak, izena ematen lehenak

Martxoaren 29an hasita, 58. Behobia-Donostia lasterketan izen-emateko aukera zabalik dago. Azken 5 urteetan 3 izen-emate egin dutenek 5 euroko deskontua izango dute (45 euro).



**MIKEL AMENABAR ARSUAGA**

Ingeniaritza Mekanikoa gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean eta Fagor Automation kooperatiban ere badabil, dual eredu.



[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

## "Mondragon Unibertsitatearen proiektuetan oinarritutako metodologia eta mundu profesionalera bideratutako aukerak oso interesgarriak dira"

**Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**

Haur hezkuntzatik batxilergora arteko ikasketa guztiak Andoaingo Aita Larramendi ikastolan egin ditut. Zaletasunei dagokienez, kirola egitea dut gustuko, mendian korri egitea, eskiatzea eta eskalada, esaterako. Horretaz gain, motorraren mundua ere dut gustuko.

**Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekanikoko gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Ez neukan batere argi zer ikasi nahi nuen, baina betidanik eman zaizkit ondo matematika eta diseinu arloak. Ondorioz, ingeniaritza arloan zentratzea erabaki nuen, zehazki mekanikako alderdian. Mondragon Unibertsitateak proposatzen zuen proiektuen metodologia eta mundu profesionalera bideratuta eskaintzen dituen aukerak interesgarriak behin zitaizkidan.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Orain arteko esperientzia positiboa bezala baloratuko nuke. Noizean behin gogorra izan arren, pertsona bezala garatzen laguntzen du.

**Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Egiten diren talde-lana ugariak eta proiektuek dinamismo handia ematen diote ikasketari, zati teorikoaz gain praktikoa ere bizitzeko aukera izaten baitugu.

**Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Klase tamaina oso txikia denez ikasketa prozesua asko errazten da, irakasleekin gertutasun bat edukitzea errazten baitu. Horretaz gain, tailerrean egindako praktikak ere oso onargarriak dira. Hobekuntza beharrik ez dut ikusten.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?**

Fagor Automationen nabil lanean, Usurbilgo plantan zehazki. Lehen, ekoizpeneko arloan aritzen nintzen produkzio prozesuak optimizatu eta dokumentatzen. Orain ordea, ikerketa eta garapenean nabil.

**Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Lan mundua gertutik ezagutzeko aukera ematen dizu, enpresa baten funtzionamendu eta beharrik bizituz. Horretaz gain, ikasitako gaiak aplikatu eta ezagutza berriak lortzen dira.

**Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Etorkizunean nire asmoa enpresa honetan lanean segitzea da, oso gustura nago eta. Hala ere, master bat egitearen aukera ez dut baztertu nahi.

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 31

## ANDOAIN Ikuskizuna

"Katuen kontuak" musika eta literatur emanaldia. Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga igoko dira taula-gainera.

20:00, *Bastero*.

## ANDOAIN Gure Zirkua

Maiatzean Andoainen hainbat saio eskainiko dituzte, hilaren 5etik 13ra. Eguerdiz, arratsalde, iluntzean... orduetegi ezberdinak aukeran. Sarrerak dagoeneko salgai.

*Gurezirkua.eus*.

## URNIETA Kantu kalejira

Hilabetero bezala, kalejira egingo du Kantazaunek. Herrian barrena, bi orduko itzulia egingo dute. Kantuan aritzeko aukera paregabea.

19:00, *San Juan plaza*.

## LARUNBATA 1

## ANDOAIN Ospakizuna

Trikitilariak, Kantujira, Urki dantza taldea... herriko hainbat eragilek bat egingo dute Euskaldunako mendeurreneko ekitaldiarekin.

12:00-13:00, *Ubitarte*.

## IGANDEA 2

## URNIETA Magia saioa

"Sentsazioak" ikuskizuna taularatuko du Hodei magoak. Erritmoz eta umorez betetarikoa.

17:30, *Sarobe*.



"El hotel de los lios" filma. BUENAVISTA

## ANDOAIN Zinema eskaintza Aste Santuan

Aste Santuko oporraldia dela eta, "El hotel de los lios" filma eskainiko dute. *Apirilaren 8tik 12ra. Eguneko emanaldi bat, 19:30ean hasita.*

## ASTEARTEA 4

## URNIETA Bilera

"Gazte Festetarako proposamenen kontrastea" landuko da bileran.

18:00, *Lekaio*.

## ANDOAIN Filma

Dokumentalei eskainitako tartean, "Siempre contigo" filma. Aharonek bizitza osoa eman du Uri semea hazten. Elkarrekin bizi dira errutina atsegin batean. Baina Uri autista da eta nahikoa heldua da etxe espezializatu batera joateko. Erakundera bidean, Aharonek semearekin ihes egitea erabaki du eta errepidera abiatu dira.

19:30, *Bastero*.

## ASTEAZKENA 5

## URNIETA Itzulia

Urnietatik eta Andoaindik gertu amaituko da Itzuliaren 3. etapa. *Arratsalde*.

## ASTEARTEA 11

## URNIETA Aisialdia

Eskulanak eta jolasak landuko dituzte 6 eta 10 urteko haurrentzat.


17:00, *Ludoteka. Apirilak 11-13*

## ANDOAIN Aisialdia

Bizkotxo tailerra, City Jumpera irteera...

17:00, *Gazte Lokala*.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Todo a la vez en todas partes

Lar, 1. 19:30, 22:00.  
Ig., 2. 19:30.  
Astl, 3. 19:30, 22:00.

## Las hermanas mágicas

Lar, 1. 17:00.  
Ig., 2. 17:00.

## El hotel de los lios

Lar, 8. 19:30.  
Ig., 9. 19:30.  
Astl, 11. 19:30.  
Astr, 12. 22:00.



## SINOPSIS



## Todo a la vez en todas partes

**Zuzendaria, gidioia:** Dan Kwan, Daniel Scheinert, Daniels.

**Aktoreak:** Michelle Yeoh, Ke Huy Quan, Jamie Lee Curtis, Stephanie Hsu, James Hong, Tallie Medel, Harry Shum Jr., Jenny Slate, Anthony Molinari. **Herrialdea:** AEB (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania.

**Generoa:** Komedia, zientzia fikzioa, familia. **Iraupena:** 139 min.

## Oscar sarietako irabazle nagusia

Dimentsio arteko haustura batek errealitatea aldatzen duenean, Estatu Batuetako etorkin txinatar bat abentura basati batean murgiltzen da, eta berak, soilik, salba dezake mundua.

Aurtengo Oscar sarietan sari nagusienak lortu dituen filma izan da. Ezarritako arauak hautsi, eta industria indartsuaren bazterrean sortutako filma saritu zuten.



Datorren Aiurri astekaria:  
Apirilak 13, osteguna

Webgunean albisteak, argazki-bildumak, bideoak...

**OPORRALDI ON, IRAKURLE!**

w w w . a i u r r i . e u s



andoainDARRA  
euskaraz



Peña Foru diputatua eta Segurado alkatea, asteazken goizeko bisitaldian. AIURRI

# Udalaren eta Aldundiaren arteko lankidetzaz

Lankidetzaz-protokolo bat sinatu dute Urnietako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, besteak beste, Babilonia eremuan adinekoen egoitza eraiki ahal izateko, pisu sozialak eraikitze eta Elkarteen Etxea hornitzeko

## Erredakzioa URNIETA

Gipuzkoako Foru Aldundiari Babilonia eremuko lursail bat esleitzeko konpromisoa hartu du Urnietako Udalak, ondoren, Aldundiak adinekoen egoitza eraiki ahal izateko. Bada, hori iragartzeko, bi erakundeetako ordezkariak bildu ziren herrian bertan joan den asteazkenean: Jorge Segurado Urnietako alkatea, batetik; eta, bestetik, Maite Peña Gizarte Politikako diputatua.

Udalak ohar bidez adierazi duenez, hasia du, jada, orube hori zuzeneko okupazioaren bidez eskuratzeko prozesua. Herritarren beharrei erantzuna ematearen garrantzia nabarmendu zuen, asteazkeneko hizorduan, Segurado alkateak: "Azken urteetan, nabarmen handitu da bizi itzaropena, 65 urtetik gorako gero eta herritar gehiago ditugu, hurrengo urteetan, mendekotasuna handitzen joatea aurreikusten da. Testu-guru horretan, guretzat oso berri pozgarria da herrian ber-

tan adinekoenkontzako egoitza bat eduki ahal izatea".

## Izaera sozialeko etxebizitzak eta Elkarteen Etxea

Bi erakundeetako ordezkarien bilkura ez zen Babiloniako lur-eremura mugatu. Izaera sozialeko apartamentuak egiteko hitzarmena sinatu zuten. Adineko pertsonentzat, desgaitasuna dutenentzat nahiz bazterkeria arriskuan daudenentzat bideratutakoak dira. Etxebizitza horiek Errekalde kalean egokituko dituzte. Hiru profil bereizi dira etxebizitza horietarako: batetik, mendekotasun maila baxua duten 65 urtetik gorako herritarrak; bigarrenik, desgaitasuna izanik, mendekotasun maila baxua du-

## "POZGARRIA DA GURETZAT ADINEKOEN EGOITZA BAT IZATEA, HERRIAN BERTAN"

JORGE SEGURADO, ALKATEA

ten eta laguntza beharra duten pertsonak, eta, azkenik, bazterkeria arrisku egoeran dauden eta premiazko beharrak dituzten herritarrak. Milioi bat eurotik gorako inbertsioa egingo da ekipamendua egokitzeko. Bestalde, igogailu batek Idiazabal kalearekin lotuko ditu etxebizitzak. Oharrean adierazten denez, eraikuntza lanek zortzi hilabeteko iraupena izango dute. Gauzak ondo, 2023ko urtearen amaieran lehen erabiltzaileak bertan bizitzaren jartzea espero da.

Halaber, hainbat zerbitzu hartuko ditu San Juan 42 kalean kokatutako eraikinak, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua eta zaintzaileentzako laguntza-taldea, hain zuzen. Halaber, Denda Berri jubilatuen elkarteak, baita Urnietako beste hainbatek ere, bertan beren espazioa izango dutela iragarri zuen Urnietako Udalak. 900.000 euroko aurrekontua izango du obrak, eta Foru Aldundiak diruz lagunduko du gastu hori.



## Martxoko irakurrienak Aiurri.eus webgunean

Inauterietako irudiak, Ixiar Arinen heriotza eta Euker Garmendiaren hautagaitza irakurrien artean dira

### Analisia | 2023, martxoa

Aiurri astekaria

Politika eta gizarte mailako albisteak nabarmendu dira, martxoan. Hilabetea osatzeko bi egunen faltan, "Ez dugu azken lau urteotako norabidean jarraitu nahi" izenburua daraman albiste irakurriena izan da Aiurri.eus webgunean. Martxoaren 12an EH Bilduk agerraldi jendetsua egin zuen Goikoplazan, eta agerraldi hark Aiurri.eus webgunean artean interes handia piztu zuen, egunean bertan eta ondorenotan. "Oihalak eta irrintziak aurrera, berdintasunaren aldeko ekitaldi jendetsuan", Andoain antolatutako berdintasunaren aldeko ekimenak ere bisitaldi ugari eragin ditu. Eta baita iragarpen batek ere, datorren apirilaren 1erako 1954ko kintoez egin duten deialdia hain zuzen.

Berriagoa da Gure Zirkua Andoainera datorren albiste, eta iragarpen hori egun gutxi epealdian irakurren artean kokatu da. Maiatzean ikusiko ditugu, Etxeberrietan.

Eskualdeko larretan bazkatzen aritu den Elosiagako artaldea, martxoaren 8ko manifestazioa, mobilizazioak TKE Elevator enpresan, egungo trazatua gaindimentsionatzea akats larria dela zioen C2ak kaltetutako plataforma, Imanol Goenaga hautagaiaren aurkezpen ekitaldia eta Ondarreta kalean suak hartutako koltxoiaren albiste izan dira martxoan webgunean arreta gehien piztu duten albisteak.

Alde batera utzi gabe, Aiurri.eus erabiltzaile askok Aiurri.eus klikatzen duela zuzenean. Webguneak, egunerokoan, gure artean pizten duen arretaren seinale onena da.

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

### Zorionak Markel!


Martxoaren 28an 11 urte bete zenituen! Ederki ospatu zenuen, etxekoekin eta lagunekin, Goiburuko aldean. Muxuak! Etxekoak.



ANDOAIN

### Zorionak Manoli!

Martxoaren 25ean egun handia izan zenuen, urteak bete zenituelako. Ama eta amona paregabea zara! Askok maite zaitugu! Muxu handi bat zure alaben eta biloben partez.



ANDOAIN

### Zorionak Ibai eta Julen!

Ibai ta Julen Gurrutxagak martxoan egin dituzte urteak. Ibaiek 22 ta Julenek 11. A ze bi guapo pare! Muxuak

## Zorion agurrak Aiurri

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus).
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus).
- Arantzibia 4-5, behea.
- 619 163 537 (whatsapp bidez).

## MERKATU TXIKIA

### LAN ESKAINTZA

Jornada erdian etxeko lanetarako eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea beharrezkoa da. **644 116 122**

### ALOKAIRU BILA

**Donostian** hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltan familia bat gara. Gutxi gorabehera 2023ko urritik 2024ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza beharko genuke. Tel: **639 987 645 / 690 270 468** (Olatz eta Aitor).

### PARTE HARTZEKO

[diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)  
619 163 537  
943 300 732



Zirkuren karpa Andoaingo Etxeberrietan ipiniko dute. AIURRI

# "Alaitasuna elkar-banatzen saiatuko gara"

Gure Zirkua Andoainen izango da, maiatzean. Eta, dagoeneko, sarrerak salgai daude konpainiaren webgunean. Udaberriko kultur programazioaren eskaintza deigarriena da, bertako zirkozaleak eta inguruko herrietako bisitariak hurbilduko baitira

## Xabier Lasa ANDOAIN

Zirkoa, profesioanala eta euskaraz. Hori lortu du Iker Galartzaren konpainiak. Euskal kulturgintzan erreferentzia bilakatu da, eta milaka ikusle erakarri dituzte. Are gehiago, probatu duenak errepikatu ohi du. Maiatzean, Andoainen izango dira, Etxeberrietako zelaian.

Aurreko astean egin zuten aurkezpen ekitaldia. Txitxu Ruiz zinegotziak egin zien harrera, eta aurkezpena hurbildu ziren Iker Galartza eta Joseba Usabiaga Gure Zirkuko ordezkariak. Aurkezpenik behar ez duten aktoreak dira biak.

Iker Galartzak hitza hartu zuen aurkezpen-ekitaldian: "Bazuetan, topikoa dirudi esateak

mundu magiko batean murgiltzen garela zirkuarekin, baina egi galanta da hori! Pozik gaude Andoainera gatzelako eta gure mundu magikoa Oria ibai ondoko zelaian jarriko dugulako: trapezistak, malabaristak, pailasoak, musikariak... Denetik dauka gure zirkuak, eta hori guztia, gure hizkuntzan!"

Adin guztientzako ikuskizuna dela nabarmendu du Galartzak, "adin txikikoak pozik etortzen dira, eta zer esanik ez helduak eta aitona-amonak!". Umorea erabili du gonbitea herritar orori zabaltzeko: "Plan zoragarria eta paregabea izan daiteke andoaindarrentzat eta inguruentzat. Santa Krutz festak bukatu berri izango dira andoaindarrak,

denak aje pixka batekin, alegia, eta gu alaitasuna ekartzen eta elkar-banatzen saiatuko gara".

Gure Zirkua Miranda Pasealekuko zelaian (haur parkearen eta frankismoko biktimen aldeko eskulturaren artean) kokatuko dute, eta ondorengo emanaldiak egino ditu: maiatzaren 5ean, ostirala (19:00); maiatzaren 6an, larunbata (16:30 eta 19:30); maiatzaren 7an, igandea (12:00 eta 18:00); maiatzaren 12an, ostirala (19:00); eta maiatzaren 13an, larunbata (16:30 eta 19:30).

Sarrerak, dagoeneko, gurezirkua.eus webgunean erosi daitezke, eta baita zirkuaren karpan bertan ere, maiatzaren 2tik aurrera. Bertako txarteldegian eskuratu ahal izango dira.

**ANDOAINGO  
ETXEBERRIETAKO  
MIRANDA  
PASEALEKUAN IPINIKO  
DUTE KARPA**

**MAIATZEKO  
LEHEN BI  
ASTEBURUETARAKO  
EMANALDIAK  
IRAGARRI DITUZTE**

**SARRERAK  
DAGOENKO  
SALGAI DAUDE  
GUREZIRKUA.EUS  
WEBGUNEAN**



Galartza, Ruiz eta Usabiaga aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

## Udaberriko kultur programazioa

Eskaintza zabala aurkeztu dute, udaberri honetarako. Musika emanaldien artean, bi aski ezagunak dira. Alde batetik, Macaco taldea. Bartzelonako musika taldeak ibilbide oparoa osatu du fusioa eta munduko musikak uztartzen. Jendetza mugitzen dute udako jaialdietan eta auditorioa betetzen duen talde horietakoa izango da. Apirilaren 21ean hurbilduko dira Andoainera. Maiatzaren 12an, berriz, Demode Quarteten txanda izango da. Maila handiko kantariak dira, umorea uztartzen dutenak. Proposamen berriei begira, maiatzaren 13an Gaztetour ekimenaren baitan hainbat artista igoko dira taulagainera.

### Antzerkia

Proposamen ugari ikusteko aukera izango da, eta guztien artean bi dira aipagarrienak. Batetik, Sexberdinak izenekoak, Aitziber Garmendia eta Telmo Iruretarakin. Azkenak Goya saria jaso du, berriki.

Ekainaren 16an hurbilduko dira Basterora. Hilabete horretan ere, baina, ekainaren 2an, kritika onak jaso dituen "Ez naiz inoiz Dublín egon" obra ikusteko aukera izango da.

### Sarrerren salmenta

Apirilaren 5etik aurrera, Basteroko leihatilan edo Kutxabank bidez.

### Bi eraskusketa, Andoaindik sortuta

Apirilaren 20an atek zabalduko ditu "Euskalduna, 100 urte zurekin" izeneko erakusketak. Klubaren ibilbidea argazki edota elastikoen bidez erakutsiko dute.

Ekainean, argazki-erakusketa kolektiboa zabalduko dute. Xabier Alkorta, Eduardo Arreseygor, Haizea Brosa, Itziar Gutierrez, Xabier Huitzi, Juanma Lazkano, Aitor Regillaga, Maddi Trutxuelo, Nerea Uralde eta Rosa Zozayaren argazkiez gozatzeko aukera izango da.



Macaco musika talde ezaguna Andoainera hurbilduko da. AIURRI